



**Helduen Literatura**

*Txartel bat (des)herrira*  
Garazi Goia  
Elkar, 2013

**Bihotzak dio... “zoaz Euskal Herrira”?**

TXARTEL BAT (DES)HERRIRA liburuarekin Garazi Goiak begirada jarri du Gernikako bonbardaketa eta gero Euskal Herritik Ingalaterrara joan ziren haurrengan eta horren harira erbestez eta herriaz hitz egiteko aukera aprobetxatu du. Baina gai honi begiratzean pertenezkoa sentimenduz harago doa hurrengoa planteatuz: zer gertatzen da herria eta norberaren arteko lotura apurtzen denean? Zer egin identitatea kolokan jartzen duten memoria mingarriekin? Nor gara iraganak gure oraina eta geroa goitik behera baldintzatzen digunean? Nonbait partaide, herritar izatearen sentimendurekin zalantzak dituzten eta deserrotuta noraez dabilen protagonistak irudikatzen dizkigu Goiak. Bi ibilbide gurutzatzen dira Londresen, biak Euskal Herritik etorriak eta biak bueltatzeko ideia era gatazkatsuan bizi dutela. Askatasunaren bilaketa eta ihesa, abandonuaren mina eta bakardadearen pisua nahasten zaizkie Ibairi eta Peruri. Lortuko ote dute Euskal Herrira bueltatzea eta bertan goxo geratzea?

Bi bizitza horiek gurutzatzen dira liburuaren kapituluetan barna, narrazioa elkarriketekin tartekatzen da, eta hauek gutun, amets eta poemekin ere harilkatzen ditu egileak. Letra etzana eta lodia ere agertzen zaizkigu batzuetan eta testu mota desberdinekin batera intertestualitatea: beste batzuren artean Milan Kunderaren *Identitatea* edo Albert Camusen *Atzerritarra* lanek gaia azpimarratzen eta

rriko dira aipu zuzenekin, Sylvia Plathen bizitzaren amaierari ere leku egingo dio etorkizunerako planak aipatzean edota Jeannete Wintersonen autobiografiaren izenburua gogora ekarriko digu hurrengo gogoetarekin: “Zergatik izan zorionsu normal egon zaitezkeenean?”.

Bi protagonistek partekatzen dituzte paperezko hegazkinen irudia, liburuan behin eta berriz errepikatzen dena. Odoleztatuta agertuko zaizkio bati ametsetan eta besteak oharrak idatziko ditu bertan esan nahi dituenak bere hartzailearengana helarazteko. Honekin batera koadernoak daude, biek idazten baitituzte euren memoriak koadernoetan. Batek hurrengoa dio: “Terapia bat da. Nire bizitzan gelditzen zaidan azken dilemetako bat hausteko”, besteak “galdetu ezin diren gauzen zerrendak” egiten dituen bitartean.

Gai eta egitura interesgarriak dituen lana izanik faltan botatzen dut edizio lan gehiago, hizkuntzari begira akatsak egotea ez litzatekeelako gertatu behar (nahiz eta badakigun gaur egungo literatur lanetan gero eta gehiago topatzen dugun zerbaite dela), eta prosa landuagoa izaten lagundu ahal izango liokeelako literatur testu hau borobilduz eta osatuz. ■

**Amaia  
Alvarez Uribe**

